keztu ez duenez, behin betiko onetsi da 2019ko plantilla organikoko aldaketa, 1. eranskinean zehazten baita. Hasierako onespeneraren erabakia 2020ko 8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitaratu, urtarrilaren 14an.

Oltza Zendea, 2020ko otsailaren 5ean.–Alkatea, Moises Garjón Villanueva.

## 1. ERANSKINA

## Lanpostu berria sartzea 2019ko plantilla organikoan

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA	SARBIDEA	OSAGARRIAK						NAHITAEZKOA / MEREZIMENDUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	GIDA BAIMENA
					A	B	C	D	E	F			
Zerbitzu aniztetakoa - Lorezaintza (hutsik)	1	LKF	D	OL			%21,55		%7	%12	Merezimendua	B1	B

Laburdurak:

Araubide juridikoa: LKF = Lan-kontratudun finkoa.  
 Sarbidea: OL = Oposizio-lehiaketa.

Osagarriak:

C = Lanpostukoa.  
 E = Arrisku berezikoa.  
 F = Mailakoa.

L2001750

## IZABA

## Aldaketa Udal Planeko eraikuntzari buruzko ordenantzaren artikulua batzuetan. Hasierako onspena

Izabako Udalak, 2019ko abenduaren 18an egin osoko bilkura arruntean eta aho batez hartutako erabakiaren bidez, honako espediente hau onetsi zuen hasiera batean: "Aldaketa puntuala Izabako Udal Planeko eraikuntzari buruzko ordenantzaren 20., 21., 22., 23., 24. eta 31. artikuluetan".

Aipatu aldaketa puntuala jendaurrean egonen da idazkaritzan 30 egun balioudunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratu ondotik. Epe horretan, interesdunek espedienteaz aztertzen ahalko dute, eta alegazioak aurkeztu.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 20an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001035

## IZABA

## 2020rako lan-egutegia

Izabako Udalbatzak, 2019ko abenduaren 18an egin osoko bilkura arruntean, aho batez erabaki zuen hasiera batez onestea gai-zerrendako 7. puntua; "2020rako lan-egutegia onestea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratzea", alegia. Hona hemen:

"Alkateak 2020ko lan-egutegia aurkeztu du, onets dadin. Bertan jasotzen da, orobat, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren laneko jaiegunen egutegi ofiziala, 2019ko 105. Nafarroako Aldizkari Ofizialak, maiatzaren 31koak, ezartzen duen bezala. Hona hemen:

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Martxoaren 19a: San Jose.
- Apirilaren 9a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 10a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 13a: Pazko astelehena.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Ekainaren 1a: Idoiako Andre Maria (herriko jaieguna).
- Uztailaren 22a: Santiago apostoluaren jaiak.
- Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokunde.
- Irailaren 16a: herriko jaiak.
- Irailaren 17a: herriko jaiak.
- Irailaren 18a: herriko jaiak.
- Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.
- Abenduaren 3a: Frantzisko Xabierkoaren eguna.
- Abenduaren 7a: Konstituzio egunaren biharamuna.
- Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbia.
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Urteko lanegunak 245 dira eta horiei kendu behar zaizkie 27 opor egun eta norberaren aferetarako 3 egun; beraz, azkenean 215 lanegun dira eta egiazko lanorduak 1.592.

Lanaldia astelehenetik ostiralera bitartekoa izanen da, eta egunero 7 ordu eta 20 minutu iraunen du. Ordu-tegiari dagokionez, 8:00etatik 15:00ak arte lan egin beharko da; gainerako 20 minutuak egiteko langileek malgutasuna izanen dute, 07:40tik 08:00ak arte eta 15:00etatik 15:20ra arte.

Artikulu honetako aitzineko paragrafoan ezarritako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi berezia

dutenei, ezta ordu konpentsazioren bat dutenei ere (txandakako lana, gauekoa etab.), horiek lan egutegi berariazkoa izanen baitute.

Izabako Udaleko Erregistro Orokorra 10:00etatik 14:30era arte egonen da irekita, jendea hartzeko, astelehenetik ostiralera.

Gaia aztertu ondotik, Udaltzako aho batez erabaki du (6 boto):

2020. urterako lan-egutegia onestea.
- Baliogabeak izanen dira, epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak, eta arestian aipatutako egunak, jaiegunak baitira.
- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Izabako Udaleko iragarki-taulan argitaratu dadila agintzea.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 20an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001036

## IZABA

### 2020rako karga-tasak

Izabako Udaltzako, 2019ko abenduaren 18ko osoko bilkura arruntean, aho batez erabaki zuen onestea "Kontribuzioen karga-tasak eta zergak berrikustea 2020rako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea". Hona hemen:

"A) Kontribuzioen karga-tasak eta zergak eguneratzea 2020rako. Hona hemen:

- Landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,80.
- Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,327.
- Ekonomia-jardueren gaineko zerga (JEZ): %1,25.
- Eraikuntzen eta obren gaineko zerga (EIOZ): %5.
- Lurren balioaren gaineko zerga (gainbalioa): %21,00.

Sortzapenaren unean lurraren balioaren gainean aplikatzeko koefizientea Udalak onetsitakoa izanen da eta hark zehaztuko du zerga-oinarria, 2020rako %21eko karga-tasa aplikatzeko:

SORTZEALDIA	APLIKATZEOA DEN GEHIENAKO KOEFIZIENTEA	IZABAKO UDALAK ONETSITAKO KOEFIZIENTEA
20 urte edo hortik gora	0,63	0,32
19 urte	0,56	0,28
18 urte	0,43	0,21
17 urte	0,29	0,15
16 urte	0,16	0,08
15 urte	0,06	0,03
14 urte	0,06	0,03
13 urte	0,06	0,03
12 urte	0,06	0,03
11 urte	0,06	0,03
10 urte	0,06	0,03
9 urte	0,06	0,03
8 urte	0,06	0,03
7 urte	0,06	0,03
6 urte	0,06	0,03
5 urte	0,06	0,03
4 urte	0,20	0,10
3 urte	0,28	0,14
2 urte	0,18	0,09
Urtebete	0,09	0,04
Urtebetetik behera	0,09	0,04

B) Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 20an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001037

## IZABA

### 2020rako ordenantza fiskalen tarifak. Hasierako onespena

Izabako Udaltzako, 2019ko abenduaren 18an egin osoko bilkura arruntean, aho batez erabaki zuen hasiera batez onestea "Ordenantza fiskalen tarifak berrikustea 2020rako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratzea". Hona hemen:

A) Ordenantza fiskal horietako tarifak eguneratzea 2020ko ekitaldirako.

- Dokumentuak:
  - Alderdi batek eskaturik egiten den agiri bakoitzeko: 1,00 euro/orria.

- Udal agirien kopiak eta fotokopiak: 1,00 euro/orria.
- Partikularren interesetan Alkatezako baimendu edo berrikusi beharreko edozein agiri: 1,00 euro/orria.

#### 2. Ziurtagiriak:

- Udal bulegoek, azken hirurtekoaren agiri edo datuei buruz ematen dituzten ziurtagiriak, plegu bakoitza: 2,00 euro.
- Aurreko hirurtekoarenak, lehenbiziko plegua: 3,85 euro.
- Sei urteko gora, urte bakoitzeko lehenbiziko pleguari: 9,50 euro.
- Konpultsak:

–Lehen folioa: euro 1. Ondorengo folioak: 0,25 euro folio bakoitzeko.

#### 4. Prezio publikoak:

–A4-ko fotokopiak: 0,15 euro lehen 10 kopiak; hurrengoak 0,10 euro bakoitza.

–A3 eta kolorezko fotokopiak: 0,25 euro/kopia.

–Faxa: 2,00 euro, lehen orria; hurrengoak 1,00 euro bakoitza.

–Udal harrobietatik legarra eta harria ateratzea: 10,50 euro/tona.

#### 5. Udalaren lokalak eta espazioak erabiltzea:

–Jarduera pribatuak, irabazi asmokoak: 11,00 euro.

–Kiroi-, kultura- eta hezkuntza-jarduerak: doan.

–Erminea pilotalekua erreserbatzea, argindarrik gabe: 4,00 euro/ordua.

–Erminea pilotalekua erreserbatzea, argindarrarekin: 5,00 euro/ordua.

#### 6. Museo Etnografikoa-Oroitzapenaren Etxea:

–Helduak: 3,20 euro.

–Eskoletakoak, ikasleak eta pentsiodunak: 1,60 euro.

–Taldea joan gabe, 8 urte arteko haurrak:

#### 7. Taldekako kanpaldiak:

Ezarritako tasa: 1,20 euro, lagun eta egun bakoitzeko.

Herri-lurretako parajeetarako tasa: 1,55 euro, lagun eta egun bakoitzeko.

#### 8. Ur hornidurako zerbitzua:

a) Hornidura zerbitzua eskura izateagatik eta horren mantentze lanarengatik: 10,60 euro, sei hilabeteko kuota finkoa.

b) Etxerako, industriarako, merkataritzarako edo ureztaketarako horniduragatik: 0,36 euro, kontsumitutako metro kubiko bakoitza.

#### I. epigrafea.–Lurzoruko aprobetxamendu bereziak.

I.1. Mahaiak, aulkiak, beladoreak, metro koadro edo zatiki bakoitza: 240,00 euro urtean.

I.2. Merkatu eta azoka txikiak, eta kalez kaleko salmenta:

–4 ordu bitarte: 5,00 euro.

–8 ordu bitarte: 10,00 euro.

–8 ordutik gora: 15,00 euro.

–Egunean:

- merkatu eta azoka txikiak, kalez kaleko salmenta, irabazi asmorik gabeko entitateek antolatuta: 00,00 euro.

#### II. epigrafea.–Lurgaineko aprobetxamendu bereziak.

Metro koadro edo zatiki bakoitzeko: 15,00 euro urtean.

#### III. epigrafea.–Zorupeko aprobetxamendu bereziak.

Metro koadro edo zatiki bakoitzeko: 15,00 euro urtean.

#### IV. epigrafea.–Gutxieneko eskubideak.

Aurreko II. eta III. epigrafeengatik likidatu beharreko zenbatekoak ez badira gutxieneko zenbatekora iristen, urtean 90,00 euro ordaindu behar da.

B) Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Onetsitako ordenantza fiskal horiek idazkaritzan ikusgai egonen dira 30 egun baliouduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratu ondotik. Epe horretan, interesdunek espedienteaz aztertu ahal dute, eta alegazioak aurkeztu.

Tarifek ondorioak izanen dituzte 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 20an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001038

**IZABA****Ordenantza fiskala, lizentziak emateko eta hirigintzako jarduketak tramitatzeak tasak arautzen dituen. Behin betiko onespena**

Izabako Udalak, 2019ko irailaren 18an egin osoko bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen Lizentziak emateko eta hirigintzako jarduketak egiteko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Hura 223. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 12an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 24an.–Alkatea, David Baines Pilart.

**ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMATEKO ETA HIRIGINTZAKO JARDUKETAK TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA***Oinarria*

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da bat etorri Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoarekin, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraikiz.

*Zerga-egitatea*

2. artikulua. Zerga-egitatea da hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea, etxegintzaren eta lurzorua erabilerearen arloko egintzak egokitu daitezzen indarra duten hirigintza eta eraikuntza araei.

3. artikulua. Udalaren hirigintzako jarduketa hauek daude tasei loturik:

1.–Lizentziak:

1.1. Lizentzia.

1.2. Lizentzia laburtua.

1.3. Jakinarazitako lizentzia eta erantzukizunpeko adierazpena.

1.4. Lurzoru urbanizaezineko aurretiatzko baimenaren tramitazioa.

1.5. Lurzaitzeko-banantzeko lizentzia.

1.6. Banaketa horizontalerako lizentzia-baimena.

1.7. Jarduera sailkaturako lizentzia.

2.–Aurretiatzko ikuskapena duten baimenak eta lizentziak:

2.1. Lehen aldiz erabiltzeko lizentzia.

3.–Hirigintzako planeamenduko tresnak:

3.1. Ondoko hauek tramitatzea: plan partzialen onespina eta aldaketa, Udal Planaren aldaketak, urbanizazio proiektuak, hiri-jarduketarako plan bereziak, xehetasun-azterketak, birzatiketa proiektuak, konpentsazio batzordeak, hirigintza-hitzaerak.

4. Hirigintzako bestelako espedienteak eta aurretiatzko kontsultak.

*Ordaindu beharra*

4. artikulua. Salbuetsita daude tasak ordaintzetik, obren lizentzia emateagatik edo erantzukizunpeko adierazpenaren edo aurretiatzko komunikazioaren mendeko obrak egindakoan kontrolatzeagatik, honako hauek:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere helburuak betetzeko sortzen dituen entitate juridikoak.

b) Udalerrien mankomunitateak eta batasunak, baldin eta Izabako Udala kide bada, baita helburuak betetzeko sortzen dituzten entitate juridikoak ere.

5. artikulua. Tasa sortuko da lizentzia eskatzen denean edo, kasua bada, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiatzko komunikazioa aurkeztzen denean, edo hirigintzako kontsulta egiten denean.

*Subjektu pasiboa*

6. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta kontsultak, lizentziak edo hirigintzako tramitazioak eskatzen badituzte.

*Tarifak eta karga-tasak*

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean ageri dira.

*Kudeaketa arauak*

8. artikulua. Planeamendurako espedientei eta lizentziei buruz udal teknikariek adostasun txostena eman ondoan, likidazioa egiten da, eta bertan zehaztuko dira subjektu pasiboaren izen-deiturak, tasa zer kontzeptutan likidatzen den, tarifa eta tasaren zenbatekoa.

9. artikulua. Tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari jakinaraziko zaio, tasak erregelamenduzko epean ordain ditzan.

**TARIFEN ERANSKINA**

	TARIFA (euroak)
<b>1. Lizentziak:</b>	
1.1. Lizentzia	80
1.2. Lizentzia laburtua	12
1.3. Jakinarazitako lizentzia eta erantzukizunpeko adierazpena	12
1.4. Lurzoru urbanizaezineko aurretiatzko baimenaren tramitazioa	24
1.5. Lurzaitzeko/banantzeko lizentzia	80
1.6. Banaketa horizontalerako lizentzia-baimena	80
1.7. Jarduera sailkaturako lizentzia	120
–Gehigarria ingurumen arloko tramiteagatik	80
–Gehigarria aurreko ikuskapenagatik	80
–Gehigarria kontsultagatik	80
<b>2. Aurretiatzko ikuskapena duten baimenak eta lizentziak:</b>	
2.1. Lehen aldiz okupatzeko lizentzia	12
–Gehigarria aurreko ikuskapenagatik	80
–Gehigarria kontsultagatik	80
<b>3. Hirigintzako planeamenduko tresnak:</b>	
3.1. Ondoko hauek tramitatzea: plan partzialen onespina eta aldaketa, Udal Planaren aldaketak, urbanizazio proiektuak, hiri-jarduketarako plan bereziak, xehetasun-azterketak, birzatiketa proiektuak, konpentsazio batzordeak, hirigintza-hitzaerak	200*
4. Hirigintzako bestelako espedienteak eta aurretiatzko kontsultak	200

(\* ) Tarifa horiei prentsako iragarkien kostua erantsiko zaie, 160 euro bakoitza.

Tarifa bakoitzean, gehigarriak barne, 80 euro gehituko dira bigarren eta hurrengo lizentzia, ikuskapen, kontsulta edo txostenengatik, baldin prozedura eta izapide berari buruzkoak badira.

L2001205

**IZABA****2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespena**

Izabako Udalak, 2019ko abenduaren 18an egin osoko bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen 2020ko plantilla organikoa.

Espedientea Udalaren Idazkaritzan egonen da jendaurrean 15 egun balioudun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek hura aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkeztzen, 2020ko plantilla organikoa berriz argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta behin betiko onetsita geldituko da.

Aplikatzekoa den araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 24an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001206

**IZABA****2020ko aurrekontua. Hasierako onespena**

Izabako Udalak, 2019ko abenduaren 18ko osoko bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen 2020ko aurrekontu orokor eta bakarra.

Espedientea Udalaren Idazkaritzan egonen da jendaurrean 15 egun balioudun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkeztzen, 2020ko aurrekontu orokor eta bakarra berriz argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta behin betiko onetsita geldituko da.

Aplikatzekoa den araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267. artikulua eta hurrengoak.

Izaban, 2020ko urtarrilaren 24an.–Alkatea, David Baines Pilart.

L2001218

**TXULAPAIN****2020ko plantilla organikoa. Behin betiko onespina**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatuari jarraikiz, jendaurreko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsi eta argitaratzen da 2020ko plantilla organikoa, eranskinean zehazten baita. Hasierako onespeneren erabakia 2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, abenduaren 27an.

Markalainen (Txulapain), 2020ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, Pablo Rota Arrieta.

**ERANSKINA***Administrazio-kontratudunak*

Idazkari-kontu hartzailea. Maila: A. Lanaldia: osoa. Atezko Udalarekin partekatua. Lanpostuko osagarria: %35. Osagarria, 19/2008 Foru Dekretuaren arabera: oinarritzko soldataren %3,72. Gradua: 3. Administrazio egoera: jardunean.

*Administrazio-kontratudunen izenen zerrenda*

Idazkari/kontu-hartzailea: Alberto Fernández Ejea. Maila: A maila. Sarbidea: OL. Sarrera eguna: 2009-11-09. Lanpostuko osagarria: %35. Osagarria, 19/2008 Foru Dekretuaren arabera: %3,72. Gradua: 3. Administrazio egoera: jardunean.

*Funtzionarioak*

administrari-ofiziala. C maila. Araubidea: Funtzionarioa. Mailako osagarria: %12. Lanpostuko osagarria: %15. Osagarria, 19/2008 Foru Dekretuaren arabera: oinarritzko soldataren %3,36. Administrazio egoera: jardunean. Gradua: 3. Hizkuntza-eskakizuna: Euskara (EGA).

*Funtzionarioen izenen zerrenda*

Administrari-ofiziala: María Elizalde Garbalena. Maila: C. Sarrera eguna: 2010-03-23. Mailako osagarria: %12. Lanpostuko osagarria: %15. Gradua: 3. Administrazio egoera: jardunean. Osagarria, 19/2008 Foru Dekretuaren arabera: oinarritzko soldataren %3,36. Euskararen hizkuntza eskakizuna.

L2001254

**TXULAPAIN****2019ko 2., 3. eta 4. aurrekontu-aldaketak. Behin betiko onespina**

2019ko ekitaldiko aurrekontuko 2., 3. eta 4. aldaketen hasierako onespenerari buruzko iragarkia argitaratu ondoko 15 egun baliouduneko jendaurreko epea iragan baita (2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 27koa) haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu gabe, aurrekontuko aldaketa horiek behin betiko onetsita gelditu dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 212. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat.

Hortaz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 214. artikuluan, 202.3 artikuluari dagokionez, ezarritakoa betetzeko, argitara ematen da behin betiko onetsitako 2019ko aurrekontuko 2/2019 aldaketa.

Hona hemen laburpena:

## 2/2019 ALDAKETA

*Kreditu berezia*

Gastuen partida, 1690 69200.–Abeltzaintzako toki azpiegiturak. Zenbatekoa: 63.100 euro.

Diru-sarreraren partida: 63.100 euro.

Aurrekontuaren gastu-igoera honela finantzatu da: Nafarroako Gobernua dirulaguntza: 30.000 euro; Markalaingo Kontzejua ekarpena: 2.000 euro; eta 31.100 diruzaintzako gerakinetik.

## 3/2019 ALDAKETA

*Kreditu berezia*

Gastuen partida, 9200 1200701.–Idazkariaren graduari dagozkion ordainsariak. Zenbatekoa: 19.590,64 euro.

Diru-sarreraren partida: 11.754,38 euro, diruzaintzako gerakinetik, eta 7.836,26 euro, Atezko Udalarenak.

## 4/2019 ALDAKETA

*Kreditu-gehigarria*

Gastuen partida, 9200 1600000.–Idazkariaren Gizarte Segurantzari dagozkion ordainsariak. Zenbatekoa: 6.180,64 euro.

Diru-sarreraren partida: 3.708,38 euro, diruzaintzako gerakinetik, eta 2.472,26 euro, Atezko Udalarenak.

Aditza ematen da, orok jakin dezan.

Markalainen (Txulapain), 2020ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, Pablo Rota Arrieta.

L2001256

**LERIN****4/2019 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespina**

2019ko 252. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 26an, 4/2019 aurrekontu-aldaketa hasiera batean onesteko erabakia. Jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu. Horrenbestez, 4/2019 aurrekontu-aldaketa behin betiko onetsirik gelditzen da, eta argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Aplikatzekoa den araudia: irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikulua; foru dekretu horren bidez garatu zen, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

GASTUAK: 35.000,00.

*Kreditu-gehigarria*

1 1510 2100000.–Kale eta seinaleen kontserbazioa: 6.793,00.

1 1510 2120006.–Parke eta lorategien kontserbazioa: 1.307,00.

1 3350 2260901.–Euskara, jarduerak, erabilera eta sustapena: 2.000,00.

1 1510 13000.–Lan-taldearen ordainsaria: 3.900,00.

1 9200 1310002.–Idazkaritzako kontratadunen ordainsaria: 11.700,00.

*Kreditu bereziak*

1 9200 62900.–Grabatzeko sistema eta fitxategia: 7.200,00.

1 1630 4622001.–Erdialdeko uholdeak, laguntzak: 800,00.

1 9200 16008.–Laneko arriskuen prebentzioa: 1.300,00.

FINANTZAKETA: 35.000,00.

*Diruzaintzako gerakina*

Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako: 35.000,00

Lerinen, 2020ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, M.<sup>a</sup> Consuelo Ochoa Resano.

L2001233

**LERIN****2020ko aurrekontua. Behin betiko onespina**

Hasierako onespeneraren erabakia 2019ko 252. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 26koan.

Jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu. Hortaz, 2020ko udal aurrekontua behin betiko onetsirik gelditu da.

Aplikatzekoa den araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikulua.

GASTUAK:

1. kapitulua: 613.360,00 euro.

2. kapitulua: 745.442,00 euro.

3. kapitulua: 300,00 euro.

4. kapitulua: 105.108,00 euro.

5. kapitulua: 10.000,00 euro.

6. kapitulua: 200.750,00 euro.

9. kapitulua: 13.620,00 euro.

Gastuak, guztira: 1.688.580,00 euro.

## DIRU-SARRERAK:

1. kapitulua: 519.200,00 euro.
2. kapitulua: 35.000,00 euro.
3. kapitulua: 147.200,00 euro.
4. kapitulua: 785.810,00 euro.
5. kapitulua: 222.800,00 euro.
7. kapitulua: 25.500,00 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 1.735.010,00 euro.

Lerinen, 2020ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, M.<sup>a</sup> Consuelo Ochoa Resano.

L2001234

## LERIN

**2020ko plantilla organikoa. Behin betiko onespena**

Leringo Udalak, 2019ko abenduaren 11n egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen 2020. urteko plantilla organikoa. Hasierako onespeneren erabakia 2019ko 252. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 26an.

Jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu. Hortaz, behin betiko onetsirik gelditu da 2020ko plantilla organikoa.

Aplikatu beharreko araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua.

Lerinen, 2020ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, M.<sup>a</sup> Consuelo Ochoa Resano.

## 1. ERANSKINA

## 2020KO PLANTILLA ORGANIKOA

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA/TALDEA	SARBIDEA	ESKLUSI-BOTASUNA	BATERAEZIN-TASUNA	ZUZEN-DARITZA LANPOSTUA	LANPOSTUA	LANAL-DIAREN LUZAPENA	ARRISKUA	MAILAKO OSAGARRIA	BERARIAZKO OSAGARRIA
Idazkaria	1	AK	A	OL	-	35	-	4,30	-	-	-	-
Kultura koordinatzailea	1	F	B	OL	-	-	-	20 + 4,15	-	-	-	-
Obren arduraduna	1	F	C	OL	-	-	-	35 + 3,94	-	-	12	-
Administrari-ofiziala	1	F	C	OLM	-	-	-	23,3910 + 3,94	-	-	12	-
Administrari laguntzailea	1	LKF	D	OL	-	-	-	22,70 + 3,67	-	-	12	-

## LABURDURAK:

Araubide juridikoa:

F = Funtzionarioa.

LKF = Lan-kontratudun finkoa.

LK = Lan-kontratuduna.

Aldizk. LKF. = Aldizkako lan-kontratudun finkoa.

BB = Behin-behinekoa.

AK = Administrazio-kontratuduna.

Sarbidea:

O = Oposizioa.

OL = Oposizio-lehiaketa.

OLM = Oposizio-lehiaketa murriztua.

IL = Izendapen librea.

ML = Merezimendu-lehiaketa.

Administrazio egoera:

ZB = Zerbitzu bereziak.

## 2. ERANSKINA

## Funtzionarioen izenen zerrenda, 2019-12-31n

IZEN-DEITURAK	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA EDO TALDEA	GRADUA	LANPOSTUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Martínez Peláez, Esther	F	B	3	Kultura koordinatzailea	Jardunean
Yanguas Lacabe, Jesús	F	C	5	Obren arduraduna	Jardunean
Martínez Solano, Raquel	F	C	4	Administrari-ofiziala	Jardunean

## Administrazio-kontratu duten langileen izenen zerrenda 2019-12-31n

IZEN-DEITURAK	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA EDO TALDEA	GRADUA	LANPOSTUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Munárriz Colomo, Cristina	AK	A	2	Idazkaria	Jardunean

## Lan-kontratudun finkoen izenen zerrenda, 2019-12-31n

IZEN-DEITURAK	ARAUBIDE JURIDIKOA	MAILA EDO TALDEA	HIRURTEKOAK	LANPOSTUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
Rodríguez González, Virginia	LKF	D	4	Administrari laguntzailea	Jardunean

## Lan-kontratu mugagabea dutenen izenen zerrenda, 2019-12-31n

IZEN-DEITURAK	ARAUBIDE JURIDIKOA	LANPOSTUA	EGOERA ADMINISTRATIBOA
San Juan Mata, Juan José	LK	Peoia	Jardunean
Anaut Altamira, Lourdes	LK	Peoia	Jardunean

L2001235

## PETILLA ARAGOI

**2020ko aurrekontua. Hasierako onespena**

Petilla Aragoiko Udalak, 2019ko abenduaren 27an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zituen 2020ko aurrekontuaren espedientea eta hura betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201., 202. eta hurrengo artikuluetan eta horiekin bat heldu diren arauetan xedatuari jarraikiz, aurrekontuaren espedientea eta hura betearazteko oinarriak jendaurrean egonen dira 15 egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamu-

netik hasita, herritarrek eta interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Petilla Aragoi, 2019ko abenduaren 27an.–Alkate udalburua, Florentino Aguas Arilla.

L2000849

## PETILLA ARAGOI

**2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespena**

Petilla Aragoiko Udalak, 2019ko abenduaren 27an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udalaren plantilla organikoa 2020. urterako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hara igortzen baitute Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. eta 271. artikuluek, hasiera batez onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da Udal Idazkaritzan hamabost egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan iragarkia paratu ondotik, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, plantilla organikoa behin betiko onetsizat joko da, jendaurreko epea iragandakoan.

Argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan eta aipatu legeetan ezarritakoa bete dadin.

Petilla Aragoi, 2020ko urtarrilaren 24an.–Alkatea, Florentino Aguas Arilla.

L2001566

## PETILLA ARAGOI

### 2020rako zerga-tasak. Hasierako onespina

Petilla Aragoiko Udalak, 2019ko abenduaren 27an egin bilkuran, hasiera batez onetsi zituen Udalaren zerga-tasak 2020. urterako.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak onetsi baitzuen, espedientea jendaurrean egonen da 30 egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta, beharrezkoa bada, bidezkoak iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak edo oharak aurkez ditzaten.

Epe hori iragandakoan, inork alegaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onetsizat hartuko dira, eta haien testu osoa emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan eta aipatu legeetan ezarritakoa bete dadin.

Petilla Aragoi, 2020ko urtarrilaren 24an.–Alkatea, Florentino Aguas Arilla.

L2001567

## SESMA

### 8/2019 aurrekontu-aldaketa. Behin betiko onespina

2019ko 249. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 20an, aurrekontuan egin aldaketa hasiera batez onesten duen erabakia, eta inork ez duenez erreklamaziorik aurkeztu, erabaki hori behin betikoa bilakatu da. Argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan. Hona hemen aldaketaren eta finantzaketaren laburpena:

Gehigarria jasoko duten partidak, eta zenbatekoak:

0100	9130002	Kredituaren amortizazioa, Monte I (Rural Kutxa)	10,00
<b>0.9 lotura burtsa, guztira:</b>			<b>10,00</b>
1650	2200001	Argietako lanpara berritzea	1.000,00
<b>1.2 lotura burtsa, guztira:</b>			<b>1.000,00</b>
9200	4820001	NUKFKo kuota	10,00
<b>9.4 lotura burtsa, guztira:</b>			<b>10,00</b>
<b>Aldaketak, guztira:</b>			<b>1.020,00</b>

Dagozkien gehigarriak, 1.020,00 euro egiten baitute, honako honen kargura finantzatzeko dira:

–Diruzaintzako 2018ko gerakin likidua sartzea: 1.020,00 euro.

Sesman, 2020ko urtarrilaren 16an.–Alkatea, M.<sup>a</sup> Rosario Echávarri Pinillos.

L2000865

## TULEBRAS

### 2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespina

Tulebrasko Udalak, 2019ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Udalaren 2020. urteko plantilla organikoa.

Onetsitako plantilla Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun balioduneko, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorri Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluek 235. artikuluari buruz xedatutakoarekin.

Tulebrasen, 2019ko abenduaren 20an.–Alkatea, Andrés Planillo Torres.

L2000850

## UNTZUE

### 2020ko aurrekontua. Behin betiko onespina

Untzueko Udalak, 2019ko azaroaren 28ko osoko bilkura berezian, hasiera batez onetsi zuen 2020ko aurrekontu orokor eta bakarra.

2019ko 254. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 30ean, eta ondoren jendaurrean egon da 15 egun balioduneko. Ezarritako epean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan eta aipatu legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 18. artikuluan xedaturikoari jarraituz, behin betiko onetsirik gelditzen da Untzueko Udalaren 2020ko aurrekontu orokor eta bakarra. Indarrean jarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, laburturik eta kapituluka, argitaratzen den egunean.

Aurrekontu orokor eta bakarraren eta bertan egindako aldaketen espedientea jendearen eskura egonen da, jakinaren gainean egon daitezten, hura behin betiko onesten denetik ekitaldia bukatu arte.

Untzuen, 2020ko urtarrilaren 23an.–Alkatea, Juan María Lafuente Olcoz.

## ERANSKINA

### 2020ko aurrekontu orokor eta bakarra

#### DIRU-SARRERAK:

KAPITULUA	IZENA	GUZTIRA (eurotan)
1	Zuzeneko zergak	119.000,00
2	Zeharkako zergak	6.000,00
3	Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	5.320,00
4	Transferentzia arruntak	68.745,00
5	Ondareko diru-sarrerak eta aprobetxamenduak	85.600,00
6	Inbertsio errealek besterentzea	0,00
7	Kapital-transferentziak eta bestelako diru-sarrerak	1.000,00
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>		<b>285.665,00</b>

#### GASTUAK:

KAPITULUA	IZENA	GUZTIRA (eurotan)
1	Langileria gastuak	24.500,00
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	94.485,00
3	Finantza-gastuak	0,00
4	Transferentzia arruntak	66.200,00
5	Kontingentzia eta ustekabeetarako funtsa	0,00
6	Inbertsio errealek	100.095,70
7	Kapital-transferentziak	384,30
8	Finantza-aktiboak	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		<b>285.665,00</b>

L2001108

## ULTZAMAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

### 2020ko ekitaldiko lan egutegia. Onespina

Mankomunitateko Kideen Batzarrak, 2019ko abenduaren 10ean egin bilkura arruntean, erabaki zuen Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzuko langileen 2020ko asteguneko jaiegunen egutegia onestea. Hona hemen zein diren ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren jaiegunak 2020an:

–Urtarrilaren 1a, asteazkena: Urteberri.

–Urtarrilaren 6a, astelehena: Jaunaren Agerkudearen festa (Errege Eguna).

–Urtarrilaren 17a, ostirala: San Anton (herriko jaia).

–Martxoaren 19a, osteguna: San Jose.

–Apirilaren 9a: Ostegun Santua.

–Apirilaren 10a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 13a: Pazko astelehena.

–Maiatzaren 1a, ostirala: Langileen Eguna.

–Abuztuaren 15a, larunbata: Andre Mariaren Jasokundea.  
 –Urriaren 12a, astelehena: Pilareko Andre Maria.  
 –Abenduaren 3a, osteguna: San Frantzisko Xabierkoa, Nafarroaren Eguna.

–Abenduaren 7a, astelehena: Konstituzio egunaren biharamuna.  
 –Abenduaren 8a, asteartea: Ama Birjina Sortzez Garbia.  
 –Abenduaren 25a, ostirala: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2020. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta Mankomunitatearen bulegoetako jaiegunak.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean lanaldiaren urteko egiazko lanordu kopurua, 1.592koa izanen dena, honela banatuko da, Mankomunitatearen egungo hitzarmenak ezartzen duen gisan:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia 7 ordu eta 20 minutu izanen da. Ordutegiari dagokionez, 8:00etatik 15:00ak arte lan egin beharko da; gainerako 20 minutuak egiteko langileek malgutasuna izanen dute, 07:40tik 08:00ak arte eta 15:00etatik 15:20ra arte.

Langileek beste ordutegi batzuk izan ahalko dituzte, lanaldi laburragatik eta/edo zerbitzuaren beharregatik, eta bestelako programetan aritzeagatik nahiz horietan lan batzuk egiteagatik.

Lan ordutegiak adosteko ahalegina egingen da beti, bizi pertsonala eta lana bateratzea ahalbidetzeko eta errazteko. Gai honetan, bereziki kontuan hartuko dira honako hauek dituztenak: seme-alaba adingabeak, desgaitasuna duten seme-alabak, odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen eta bigarren graduako pertsona gaixoak, mendekotasuna dutenak eta abar. Egoera hori frogatu egin beharko dute.

Ordutegia lanorduen zenbateko osora egokitzeak, langileek 35 ordu eta 15 minutu izanen dituzte; horietatik, egun bat oporrei erantsiko zaie (28 egun izanen dira, eta ez 27) eta 3 egun eta 6 ordu, herriko bestetarako.

Erregelamenduz ezarritako oporrak administrazio organo eskudunak emanen ditu, Mankomunitatearen hitzarmenak berak ezartzen duen gisan.

Horiez gain, norberaren aferetarako 3 egun gelditzen dira, langileek aukeratzeko.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2020rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Ondorio horietarako, aldatetaren bat izanez gero, behar diren doikuntzak egingen dira.

Larraintzarren (Ultzama), 2019ko abenduaren 10ean.–Mankomunitateko burua, Ekaitz Astiz Martínez.

L2001039

## ULTZAMAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

### 2020ko plantilla organikoa. Hasierako onespena

Mankomunitateko Kideen Batzarrak, 2019ko abenduaren 10ean egin bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zuen 2020ko ekitaldirako plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan ezarriari jarraikiz, harat igortzen baitu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua, hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da Mankomunitatearen egoitzan, hamabost egun balioduneko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitatearen iragarki-taulan paratuta, herritarrek eta/edo interesdunek espedientea aztertu eta bidezkoak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egin ezean, jendaurreko epea iragandakoan, plantilla organikoa behin betiko onetsizat joko da.

Larraintzarren (Ultzama), 2019ko abenduaren 10ean.–Mankomunitateko burua, Ekaitz Astiz Martínez.

L2001040

## ULTZAMAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

### 2020ko aurrekontua. Hasierako onespena

Ultzamako, Basaburuko, Odietako, Atezko, Anueko eta Lantzeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Kideen Batzarrak, 2019ko abenduaren 10ean egin bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zituen 2020ko ekitaldirako aurrekontuaren espedientea eta hura betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan eta harekin bat heldu diren arauetan xedatuari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek eta interesdunek hura aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Larraintzarren (Ultzama), 2019ko abenduaren 10ean.–Mankomunitateko burua, Ekaitz Astiz Martínez.

L2001041



### 3. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

#### ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

##### Iruñeko eta Tuterako bi merkataritza-lokalen enkante publikoa

Ebazpena, Defentsaren Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduaren Institutua erakunde autonomoak emana, iragartzen dituena elkarren ondotik eginen diren bi enkante publiko (lehen eta bigarrena), Nafarroan (Iruñean eta Tuteran) dituen bi merkataritza-lokal saltzeko eskaintza gorenari, gutun-azal itxian aurkeztuko diren proposamen ekonomikoen artetik.

Defentsaren Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduaren Institutua erakunde autonomoko zuzendari kudeatzaileak emandako ebazpenaren bidez, erabaki da ondotik deskribatzen diren higiezinak saltzea eskaintza gorenari, elkarren ondoko enkante publikoetan gutun-azal itxian aurkeztuko diren proposamen ekonomikoen artetik:

1.–Lokala, Iruñeko Sandoval kaleko 3an (behea 1).

Iruñeko 2. Jabetza Erregistroan inskribatua: 1414. liburukia, 686. liburua, 138. orria, 31781. finka, lehen inskripzioa. IDUFIR: 31011000338604.

Katastro-erreferentzia: 31000000001883123XL. Erregistro-azalera: 101,98 metro koadro.

Lehen enkanterako hasierako prezioa: 125.998,30 euro. Bigarren enkantea: 113.398,47 euro.

2.–Lokala, Tuterako Díaz Bravo kaleko 16an (behea 2).

Tuterako 1. Jabetza Erregistroan inskribatua: 3203. liburukia, 853. liburua, 94. orria, 37605. finka, lehen inskripzioa. IDUFIR: 31018000586493.

Katastro-erreferentzia: 310000000002109228KS. Erregistro-azalera: 147,98 metro koadro.

Lehen enkanterako hasierako prezioa: 151.297,71 euro. Bigarren enkantea: 136.167,94 euro.

Ezaugarri fisikoak, juridikoak, erregistro-inskripzioa, katastro-inskripzioa, ezaugarri teknikoak eta jabetzen hirigintza erabilerak: enkantea arautzen duten agirietan jasotakoak.

Enkanteetan parte hartzeko eskaintzak eta dokumentazioa aurkezteko azken eguna:

Enkantearen iragarkia EAO n argitaratu eta biharamunetik hasita 2020ko martxoaren 12ko ordu bata arte, Defentsaren Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduaren Institutua erakunde autonomoko erregistro orokorrean (Madrilgo Isaac Peral kalea 20-32). Epe hori amaituta aurkeztu diren proposamenak ez dira onartuko. Posta ziurtatuaren bidez bidalitako eskaintzak ere onartuko dira; horrelakoetan, lizitatzailak justifikatu beharko ditu bidalketaren eguna eta ordua posta bulegoan, eta bidalketaren berri emanen du Erregistroan, egun berean, fax bat bidaliz 91 602 08 85 zenbakira, edo mezu bat [invied.subastasdeinmuebles@mde.es](mailto:invied.subastasdeinmuebles@mde.es) helbide elektronikora, lizitatzaila identifikatuta eta postako bidalketaren ziurtagiriaren PDFa erantsita.

Proposamen ekonomikoen gutun-azalak enkanterako eraturako mahaia irekiko ditu Defentsaren Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduaren Institutua erakunde autonomoaren egoitzan (Madrilgo Isaac Peral kalea 20-32), 2020ko martxoaren 26an, goizeko hamaiketan hasita.

Agiriak eta argibide gehiago eskuratzeko eta lokala bisitatzeko: Defentsa Ordezkariordeztako Ondare Arloan (Iruñeko Chinchilla jeneralaren kalea 10; telefonoak: 948207622, 948207600, 948207626), eta Defentsaren Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduaren Institutua erakunde autonomoaren bulegoetan (Isaac Peral kalea 20-32; telefonoak: 91 602 09 19, 91 602 08 44, 91 602 08 19), bulego orduetan, eta web orri honetan: <http://www.invied.es>.

Iragarki honetan akats materialik baldin badago, besterentzea arautzen duten baldintza teknikoak eta administratiboak agirietan ezarritakoa bete beharko da.

Madrilen, 2020ko urtarrilaren 30ean.–Zuzendari kudeatzailea, Atilano Lozano Muñoz.

E2001683

## 6. BESTELAKO IRAGARKIAK

### 6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK

#### JUZGADO DE INSTRUCCIÓN NÚMERO CUATRO DE PAMPLONA

##### Citación. Juicio de delito leves 2946/2019

Por tenerlo así acordado en el procedimiento referenciado, se cita al denunciado Daniela Muti a fin de que comparezcan, al objeto de asistir a la celebración del Juicio oral, que tendrá lugar el día 13 de febrero a las 12:30, en la Sala de vistas número 303 (Planta Tercera), debiendo hacerlo con las pruebas de que intente valerse.

Y para que sirva de citación en forma, expido y firmo la presente.

Pamplona, 6 de febrero de 2020.–La Letrada de la Administración de Justicia, Lorena Pegenaute Grajal.

J2001831

### 6.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK

#### SINDICATO CAMPO DE LA MEJANA DE SANTA CRUZ

##### Junta General Ordinaria

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 45 de las Ordenanzas, se convoca a los propietarios del Campo de la Mejana de Santa Cruz de Tudela a Junta General Ordinaria, que se celebrará el día 27 de febrero de 2020 a las diecinueve horas en primera convocatoria y en caso de no reunirse suficiente número de propietarios a las diecinueve horas treinta minutos en segunda, en la sede de la comunidad de regantes, calle Capuchinos, 9, con arreglo al siguiente

Orden del día:

- 1.–Lectura y aprobación en su caso acta Junta anterior.
- 2.–Lectura y aprobación, si procede, de cuentas.
- 3.–Presupuesto de ingresos y gastos presente ejercicio.
- 4.–Designación de censores de cuentas.
- 5.–Elección de dos vocales de junta de gobierno y dos del jurado de riegos.
- 6.–Ruegos y preguntas.

Lo que se publica para conocimiento de los señores propietarios.

Tudela, 31 de enero de 2020.–El Presidente, Pablo Viela Rodríguez.

P2001765

#### COMUNIDAD DE REGANTES SINDICATO DE RIEGOS DE ARGUEDAS

##### Junta General Ordinaria

Se convoca a todos los propietarios pertenecientes a la Comunidad de Regantes de Arguedas, a la Junta General Ordinaria a celebrar el próximo viernes 28 de febrero de 2020 en la oficina de esta Comunidad, sita en calle Mayor, 4 bajo de Arguedas, a las 19:00 horas en primera convocatoria y a las 19:30 horas en segunda.

Orden del día:

- 1.–Lectura y aprobación, en su caso, del acta anterior.
- 2.–Examen y aprobación, en su caso, de la Cuenta de Pérdidas y Ganancias y Balance del año 2019.
- 3.–Ruegos y preguntas.

Arguedas, 28 de enero de 2020.–El Presidente, Sergio Samanes Malón.

Nota: Todo aquel que acuda representando a algún propietario deberá acreditarlo con autorización por escrito media hora antes de la primera convocatoria.

P2001706

#### COMUNIDAD DE REGANTES DE LA FINCA DEL RASO DE ARGUEDAS-TUDELA

##### Junta General Ordinaria

Se convoca a todos los colonos de la Comunidad de Regantes del Raso a Junta General Ordinaria, que tendrá lugar en la sede social de la Comunidad en la calle Bardenas, número 24 bajo, el próximo viernes 21 de febrero de 2020 a las 19:00 horas en primera convocatoria y a las 19:30 horas en segunda.

Orden del día:

- 1.–Lectura y aprobación, en su caso, del acta anterior.
- 2.–Lectura y aprobación, si procede, de la cuenta Explotación y Balance del año 2019.
- 3.–Examen y aprobación, en su caso, de los presupuestos de ingresos y gastos del año 2020.
- 4.–Ratificación acuerdos de interés.
- 5.–Ruegos y Preguntas.

Arguedas, 22 de enero de 2020.–El Presidente, Esteban Ustárroz Sanz.

P2001935